


M_{LH6}

2018-2019



Zuzenketa koaderno

Izen-deiturak:

Ikastetxea:


Ikastaldea/Ikasgela:

Herria:

Egunak:

**Matematika
Gaitasuna**

Lehen Hezkuntzako 6.a



Argibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzun beharko diezu.

Galdera mota desberdinak topatuko dituzu. Batzuek lau aukera dituzte erantzuteko, eta aukera zuzen bakarra hautatu beharko duzu, eta biribil batekin inguratu haren ondoan dagoen letra. Adibidez:

Zenbat da $2 + 5$?

- A. 2
- B. 6
- ☒ C. 7
- D. 11

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin zure lehenbiziko aukera eta inguratu biribil batekin erantzun zuzen berria, adibidean agertzen den bezala:

Zenbat da $2 + 5$?

- ☒ A. 2
- B. 6
- ☒ C. 7
- D. 11

Eragiketak eskatu egiten den galderetan bakarrik idatzi beharko dituzu. Galdera horietan, horrelako lauki bat agertuko da:

Eragiketak:

Beste galdera batzuetan eskatuko dizute erantzuna idazteko puntuekin seinalatzen den tartean:

Idatzi zenbat angelu eta zenbat alde dituen triangeluak.

.....



Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

Txakurrak, maskota gisa

Gaur egun jende askok txakurra du etxean. Maskotek zaintza berezia eta elikadura egokia behar dituzte. Gainera, garrantzitsua da bizitza aktiboa izan dezatela.



1. Ainhoa al baitariarengana joan da txakurrarekin osasun azterketa egitera, eta horrek 35 euro balio du. Gainera, 40 euroko pentsu zakua erosi du, %30eko deskontuarekin. Zenbat diru ordainduko du Ainhoak guztira?

- A. 45 euro.
- B. 47 euro.
- C. 63 euro.
- D. 65 euro.



2. Ainhoak txakurrarendako edontzi bat du, 800 cm^3 -ko edukierakoa. Egunean hirutan, edontzia husten eta erabat betetzen du. Zenbat litro ur beharko ditu egun baterako?

- A. 0,24 litro.
- B. 0,80 litro.
- C. 2,40 litro.
- D. 8 litro.



3. Ainhoa eta auzokidea paseoan ateratzen dira, beren txakurrekin. Begira ezazu irudia eta kalkulatu txakurraren altuera, auzokideak 1,77 m-ko altuera duela kontuan hartuz.

- A. Txakurrak 35 cm baino gutxiago neurtzen du.
- B. Txakurrak 35 eta 65 cm bitarte neurtzen du.
- C. Txakurrak 65 eta 85 cm bitarte neurtzen du.
- D. Txakurrak 85 cm baino gehiago neurtzen du.



4. Ainhoaren lagun batek lera-txakurren lasterketa batean parte hartu du. Guztira 56 km egin behar dituzte eta lasterketak 4 etapa ditu:

Etapak	Distantzia
1.a	15 km
2.a	12 km 800 m
3.a	14600 m
4.a	?
Guztira	56 km



Zer luzera du laugarren etapak?

Idatzi eragiketa edo eragiketak eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak. Zenbait metodo baliozko daude, adibidez:

Kalkuluak metrotan:

$$15000 + 12800 + 14600 = 42400$$

$$56000 - 42400 = 13600$$

Kalkuluak kilometrotan:

$$15 + 12,8 + 14,6 = 42,4$$

$$56 - 42,4 = 13,6 \text{ km}$$

Kalkuluak metro eta kilometroetan:

$$15 \text{ km} + 12 \text{ km } 800 \text{ m} + 14 \text{ km } 600 \text{ m} = 42 \text{ km } 400 \text{ m}$$

$$56 \text{ km} - 42 \text{ km } 400 \text{ m} = 13 \text{ km } 600 \text{ m}$$

..... luzera du laugarren etapak.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. Era berean, 0 puntu emanen dira ikasleak kalkuluko hutsegiteren bat egin badu, edo soluzio bat idazten badu (zuzena izanagatik ere) ariketa ebazteko prozesua azaldu gabe.
1	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere edozein neurri unitatetan.


5. Begira itzazu txakurraren irudia eta txakurraren bizkarrezurraren eta buztanaren artean marraztutako angelua. Zenbat gradu neurtzen du angelu honek, gutxi gorabehera?

A. 0° eta 45° artean.
 B. 45° eta 90° artean.
 C. **90° eta 135° artean.**
 D. 135° eta 180° artean.



6. Nikoren txakurrak 35 kg pisatzen du. Duela urte bat oraingo pisuaren %80a pisatzen zuen. Zenbat pisatzen zuen iaz?

A. 7 kg
 B. 21 kg
 C. **28 kg**
 D. 42 kg



7. Ane Nikoren laguna da, eta txakurra trebakuntza gun e batera eramaten du. Saioa bukatzean, Ane txakurra freskatzen ari da, 33 cm-ko erradioa duen garbiket a uztai batekin. Uztaiak 42 zulo ditu, beren artean distantzia berera banatuak.




Gogoratu zirkunferentzia baten luzera zirkunferentziaren **diametroa** eta **π** -ren biderkadura dela

Nola kalkulaten da, zentimetrotan, jarraian dauden bi zuloren arteko arkuaren luzera?

A. **$3,14 \times 66 : 42$**
 B. $3,14 \times 33 : 42$
 C. $3,14 \times 33^2 : 42$
 D. $42 : (3,14 \times 66)$

8. Ondoko grafikoan, Anek txakurraren eguneroko entrenamendu-aldia adierazi du.



Kalkulatu bost egunetako batez besteko entrenamendu-aldia.

Idatzi eragiketa edo eragiketak eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak.

$$45 + 58 + 53 + 46 + 38 = 240$$

$$240 : 5 = 48 \text{ min}$$

Batez besteko entrenamendu-aldia**48**..... minutukoa izan zen.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. Era berean, 0 puntu emanen dira ikasleak kalkuluko hutsegiteren bat egin badu, edo soluzio bat idazten badu (zuzena izanagatik ere) ariketa ebazteko prozesua azaldu gabe.
1	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere.

9. Entrenamendu proba batean, Aneren txakurrak 6000 metro egin ditu 24 minutuan eta Nikoren txakurrak, aldiz, 6400 metro egin ditu 32 minutuan. Zein izan da txakurrik azkarrena?

Idatzi eragiketa edo eragiketak eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak. *Zenbait metodo baliozko daude, adibidez:*

Minutu batean txakur bakoitzak egindako bidea:

Aneren txakurra $\rightarrow 6000 : 24 = 250 \text{ m}$

Nikoren txakurra $\rightarrow 6400 : 32 = 200 \text{ m}$

Erantzuna: Txakurrik azkarrena **Anerena** izan da.

Arrazoibidea: zeren ...

- ...denbora berean bide luzeagoa egin baitu.
- ...250 m gehiago baita 200 m baino.
- ... Aneren txakurrak minutu batean 250 m egin baititu eta, Nikorenak aldiz, 200 m.

Txakurrik azkarrena **Ane** -rena izan da, zeren

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. Era berean, 0 puntu emanen dira ikasleak kalkuluko hutsegiteren bat egin badu, edo soluzio bat idazten badu (zuzena izanagatik ere) ariketa ebazteko prozesua azaldu gabe.
1	Planteamendua zuzen egin du eta azken soluzioa zuzen idatzi du baina ez du erantzuna arrazoitu edo arrazoibidea ez da zuzena.
2	Planteamendua zuzen egin du, azken soluzio zuzena idatzi du eta erantzuna arrazoitu du.

- 10.** Nikok dendan bi xanpu pote eta txakurrarendako uhal bat erosi ditu. Nikok kopuru zehatza ordaindu du, billete batekin eta lau txanponekin.




Marraz itzazu billetea eta lau txanponak.

Billetea	Txanpona	Txanpona	Txanpona	Txanpona

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Ez ditu behar bezala marraztu erabilitako billetea eta txanponak.
1	Behar bezala marraztu ditu erabilitako billetea eta txanponak. Baliozko erantzunak: 50 €-ko billetea Monetak: 1 €-ko bi, 20 zent. €, 10 zent. € 50 €-ko billetea Monetak: 2 €, 10 zent. €-ko hiru 50 €-ko billetea Monetak: 2 €, 20 zent. €, 5 zent. €-ko bi Aski da marraztea laukizuzen bat billeterako eta zirkunferentzia bat txanponetarako, eta haietako bakoitzaren barnean behar den zenbakia jartzea, unitatearekin edo unitaterik gabe.

Irudi honetan hurrengo bi galderei erantzuteko erabiliko duzun Google Maps-eko plano bat ikus daiteke. Nikoren auzoko txakurrentzako eremua adierazi da.



11. Zein da txakurrentzako eremuaren azalera?

- A. 1800 m^2
- B. 2250 m^2
- C. 2700 m^2
- D. 3150 m^2

12. Udalak txakurrentzako eremu horretako hesi guztia aldatu nahi du. Zenbat metro hesi beharko dira?

- A. 180 eta 210 metro bitartean.
- B. Gutxi gora behera 210 metro.
- C. 210 eta 240 metro bitartean.
- D. 240 metro baino gehiago.

13. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6.eko ikasleak Bilboko Guggenheim museoa bisitatzerantz doaz. Hitzartu duten bisita 10:45ean hasiko da. Bidaiak ordu 1 eta 35 minutu irauten du. Bisitaldia hasi baino ordu laurden lehenago iritsi nahi dute, hamaiketako egin ahal izateko. Zein ordutan atera behar dute ikastetxetik, garaiz iristeko?

- A. 8:50ean.
- B. 8:55ean.
- C. 9:05ean.
- D. 9:10ean.




Liburutegiak

Nafarroako herri askok liburutegi publiko bat dute, eta bertan liburuak mailegatzen dituzte, irakurtzeko. Zenbait hiritako liburutegien eraikinak bitxiak izaten dira.



- 14.** Begira ezazu Stuttgart-eko (Alemania) liburutegi publikoaren irudia. Liburutegi honek alboetako alde guztiak beiratez beteak ditu, sarrerako lau ateak izan ezik.



Beirate bat

Zer adierazpen matematikok kalkulatu du eraikinak guztira dituen beirate kopurua?

- A. $(9 \times 9 - 1) \times 4$
- B. $9 \times 9 \times 4 - 4$
- C. $81 \times 4 - 4$
- D. A, B eta C zuzenak dira.

15. Stuttgart-eko liburutegian milioi bat hirurehun eta hirurogeita hamar mila liburu inguru daude. Nola idazten da kopuru hori?

A. $1,37 \times 10^4$ liburu.
 B. $1,37 \times 10^5$ liburu.
 C. $1,37 \times 10^6$ liburu.
 D. $1,37 \times 10^7$ liburu.



16. Eun Young Yi korear arkitektoak diseinatu zuen liburutegi horren proiektua. Eraikinak 44 metro luze, 44 metro zabal eta 40 metro altu ditu.


Zer gorputz geometrikoren forma du eraikin horrek?

A. Kuboa.
 B. Piramidea.
 C. Karratua.
 D. Prisma.



17. Leire eta gurasoak irudian ikus daitekeen apalategia muntatzen ari dira. Hexagono erregular baten itxura du. Zein da hexagono horren perimetroaren luzera?

A. 3,60 m
 B. 4,14 m
 C. 7,20 m
 D. 8,28 m



18. Joan den asteko ostegunean, Iruñeko liburutegi batean, liburu bat hartzera joan zen erabiltzaile kopurua kontatu zuten. Aurki ezazu zenbat erabiltzaile joan ziren liburutegira, honako hau jakinik:

- 3 zifrako zenbakia dela.
- Zifra guztien batura 3 dela.
- 7 eta 10 bere zatitzaileak direla.

Joan zen erabiltzaileen kopurua210..... da.






Zuzenketa irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra.
1	Erantzun zuzena: 210.

- 19.** Ondoko taulan duzu Nafarroako herri bateko liburutegi publiko batean urte honetan mailegaturiko liburuen kopurua.


Urtarrila	Otsaila	Martxo	Apirila	Maiatza
80	70	120	90	130

Egin ezazu grafiko bat taulako datuekin:



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatugabea.
1	Zuzen kokatzen ditu hilabete bakoitzeko puntuak eta lerro poligonal eta/edo barra diagrama motako grafikoaosatzen du.

- 20.** Paula liburategian maileguan hartutako liburu bat irakurtzen ari da. Liburuak dituen 217 orrietatik $\frac{4}{7}$ irakurri ditu. Liburua bukatzeko zenbat orri falta zaizkio?



Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak. *Zenbait metodo baliozko daude, adibidez:*

A aukera:

$$217 \text{ en } \frac{4}{7} = 217 : 7 \times 4 = 124$$

$$217 - 124 = 93 \text{ orrialde}$$

B aukera:

$$217 \text{ en } \frac{3}{7} = 217 : 7 \times 3 = 93 \text{ orrialde}$$

..... **93** orrialde falta zaizkio liburua bukatzeko.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. Era berean, 0 puntu emanen dira ikasleak kalkuluko hutsegiteren bat egin badu, edo soluzio bat idazten badu (zuzena izanagatik ere) ariketa ebazteko prozesua azaldu gabe.
1	Planteamendua zuzen egin du, kalkuluetan hutsegite bakarra egin du. Era berean, puntu bat emanen da irakurritako orrialde kopurua bakarrik zuzen kalkulatzeko badu.
2	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere.